GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0401 - Gobernantzako Zerbitzu Orokorrak
Programa: 010 - Gobernantzako Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzea.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 100 - Diputatuen Kontseiluaren Idazkaritza, Aholkularitza eta Defentsa Juridikoa
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Genero ikuspegia politika publikoan txertatzea

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 110 - Aldundiko Zerbitzu Orokorrak
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeko beharra

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0410 - Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 120 - Kontratazio publikoa koordinatzeko zerbitzua
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten dituen kontratazioetan emakume eta gizonaren arteko berdintasunari buruzko klausulak sartzea ezinbestekoa da; baina, klausula hauek sartzerakoan kontratu bakoitzaren ezaugarriak, kontratuaren objektu bakoitzaren sektorearen ezaugarriak, eta sektore horretan emakume eta gizonen berdintasunean izan daitezkeen arazoak kontuan hartu beharko dira. Zailtasunak daude klausula mota hauek zehazterakoan, lizitazioan aplikatzerakoan eta kontratuaren exekuzioan jarraipena egiterakoan.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0420 - Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Funtzio Publikoa
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

Aurrekontu programak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusiak identifikatu ditu:
- Segregazio horizontala. Gipuzkoako Foru Aldundiko plantillaren eremu edo lanpostu kategoria jakin batzuk maskulinizatuta daude, hala nola suhiltzaileak (244 gizon, % 95,68, eta 11 emakume, % 4,31); bidezainak (29 gizon, % 100); eta basozainak (3 emakume, % 4,9, eta 58 gizon, % 95,68). Beste lanpostu kategoria batzuk, berriz, feminizatuta daude, hala nola zaintzaileak (43 emakume, % 100), garbitzaile-jantokiko langileak eta administrariak (339 emakume, % 81,12, eta 64 gizon, % 18,87). Segregazio horrek erakusten du genero rolek eta estereotipoek bere horretan jarraitzen dutela, eta, gainera, segregazio horrek ondorioak dituela lan baldintzetan eta, bereziki, soldata arrakalan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026ko Aurrekontu Orokorren genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio memorian garatzen eta jasotzen den bezala.
- Segregazio bertikala. Emakumeek zailtasunak dituzte buruzagitza postuetara iristeko, eta argi ikusten da, emakume gutxi baitaude zerbitzuburu, atalburu eta idazkari tekniko lanpostuetan. Lanpostu horiek A1 eta A2 sailkapen taldeetakoak dira eta, nahiz eta talde horietan % 65,5 emakumeak izan, buruzagitzen % 46,98 baino ez daude emakumeek beteta.
- Kontziliazio baimen eta lizentzien feminizazioa. Lizentzia eta baimen mota horiek emakumeek eskatzen eta "baliatzen" dituzte gehienbat: adingabeak eta adinekoak zaintzeko lanaldi murrizketak eta eszedentziak (eskatzaileen % 86 emakumeak dira, eta % 14 gizonak); apur bat jaisten da emakumeen kopurua adingabeei eta adinekoei medikuarengana laguntzeko baimenetan (emakumeak % 84 eta gizonak % 15), edo telelanean (emakumeak % 76 eta gizonak % 24). Beraz, argi gelditzen da soldata penalizazioa duten lizentzia eta baimenetan emakumeak direla nagusi (% 86); beraz, kontziliazio neurri horiei lotutako eragin ekonomikoa batez ere emakumeek jasaten dute, eta generoko soldata arrakala betikotzen laguntzen dute.
- Emakumeen behin-behinekotasun handiagoa. Emakumeen proportzioa handiagoa da behin-behineko langileen artean (emakumeak % 58 dira eta gizonak, % 42) eta aldi baterako lan-kontratudun langileen artean (emakumeak % 78 eta gizonak % 22). Ondorioz, emakumeen enpleguan prekarietate handiagoa dago (eta horrek ondorio negatiboak ditu, garapen profesionalerako eta erantzukizuneko lanpostuak lortzeko zailtasunak eta generoaren araberako soldata-arrakala), eta pobreziaren feminizazioa dakar.
- Berdintasunari buruzko prestakuntza urria eta feminizatua. Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasunaren arloan eskaintzen duen prestakuntza ez da nahikoa, eskainitako plaza kopuruagatik eta, batez ere, langileen parte-hartze txikiagatik, izena ematen duten gehienak emakumeak baitira (parte-hartzaileen % 80 emakumeak dira, eta % 20 gizonak). Era berean, gizonei zuzendutako berdintasunari buruzko «berariazko» prestakuntza «testimoniala» da. 2023an, gizonei bakarrik zuzendutako berdintasunerako oinarrizko ikastaroa egin gabe geratu zen, eskaera gutxi egin zirelako; izan ere, 2 gizonek baino ez zuten eskatu.
- Jazarpen sexistako egoerak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren lan eremuko jazarpen sexista prebenitzeko eta hari aurre egiteko protokoloa egin aurreko diagnostikoan, ikusi zen zaila dela jazarpen sexistako egoerak identifikatzea, egoera horiek gutxiesteko eta hutsaltzeko joera dagoela, identifikatzen direnean jarduteko zailtasunak eta erresistentziak daudela, oso maskulinizatuta edo oso feminizatuta dauden lan eremuetan arreta berezia jarri behar dela, eta langile guztiei arlo horretako prestakuntza eta sentsibilizazioa eman behar zaiela.

Berdintasun-agindu nagusiak:

-Aurrekontua prestatzerakoan genero ikuspegia txertatzea.
-Informazioa sortzeko euskarri guztietan sexu aldagaia sartzea.
-Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea, eta, beraz, programaren hizkuntza berrikustea, inklusiboa eta ez-sexista izan dadin.
-Euskal herri administrazioek, beren eskumen eremuan, emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasuna erreala eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta

kontratuen azkentzeko baldintzetan.
-Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bermatuko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, sailkapen profesionalean, promozioan, prestakuntzan, lan osasunean, ordainsarietan eta lan eskubideetan, lan baldintza duin eta ez-baztertzaileak bermatuz.
-Emakumeek lanpostu mota guztietan eta lanpostu maila guztietara emakume gehiago iristeko sustapen aktiboa egitea.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

- HE.1.3: Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde aurrera egitea.

- P.1: Foru Aldundian berdintasunerako zeharkako politika sustatu, garatu eta jarraipena egitea

Ekintza lerroak:

- EL.1.3.4: Lurraldean emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren aurka jardutea, indarkeria mota guztiak kontuan hartuta eta prebentzioaren, detekzioaren, ikusgaitasunaren, arretaren eta erreparazioaren ikuspegitik.

- P.1.1: Berdintasunerako foru politika eraginkortasunez garatzeko barne egiturazko baldintzak indartzea.

- P.1.2: Langileen eta erabaki guneetan jarduten duten eragileen barne prestakuntza modu planifikatuan sustatzea, genero ikuspegia foru politika guztietan txertatzeko.

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Ekintza	Aurrekontua	Programa %
Gipuzkoako Foru Aldundiaren lan-esparruan jazarpen sexista prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa berrikustea, eguneratzea eta zabaltzea	42.886,33	0,37
Berdintasunerako Organoarekin lankidetzan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegu publikoaren eskaintzako deialdietarako genero inpaktuaren aurretiazko ebaluazio txostenak hobetzea eta ondorengo jarraipena egitea	31.082,27	0,27
Gipuzkoako Foru Aldundiko langileei berdintasunaren arloko prestakuntza emateko plan zuzentzailea ezartzea, profil eta lan-arlo desberdinak kontuan hartuta	18.715,13	0,16
Soldata-arrakala murrizteko ekintzak garatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Barne Planean jasota dagoen bezala. Zehazki, 27. eta 28. ekintzak	23.549,36	0,20
Guztira	**116.233,09**	**% 1,00**

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	10,50	puntu
Kuantifikazioa:	116.233,14	(% 1,00)
Ordainketa kredituak:	116.233,14	(% 1,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0430 - Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 300 - Gobernu Ona eta Herritarren Partaidetza
Funtzionala: 924 - Herritarren parte hartzea

Programaren genero garrantzia: Handia

Beharraren deskribapen xehatua:

INFORMAZIO-GABEZIAK
Datu gutxi daude herritarren parte-hartzearen ezaugarriak ezagutzeko eta berdintasun-aginduen betetze-maila ebaluatzeko. Diruz lagundutako prozesuetan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzeari buruzko informazioa badago ere, orain arte ezin izan da ustiatu. Udaleko prozesu parte-hartzaileen datu-base berriari esker, lurraldeko datu agregatuak eskuratu eta argitaratu ahal izango dira. Hala ere, oraindik ez da ezagutzen prozesu horiek genero-desberdintasunen murrizketan duten benetako eragina.
PARTE HARTZEKO ORGANOAK ETA ESPAZIOAK
Zuzendaritza honi lotutako organo gehienetan emakumeen parte-hartzea da nagusi: Erakunde arteko Espazioan (% 95), Foro Teknikoa (% 69), Udalerri Txikien Taldea (% 80), Gizarte Kontseilua (% 62), Foru Batzordea (% 60), Elkarteen Foroa (% 78) eta Etika Batzordea (% 67). Hala ere, Parte Hartzeko Herritarren Entitateen Foru Erregistroan inskribatutako entitateen lehendakaritza gehienak gizonezkoak dira (% 55).
Zuzendaritza honek zuzenean erabakitzeko ahalmenik ez duen Aldundiko beste gune batzuetan, interes-taldeetan esaterako, gizonen ordezkaritza % 60koa da. Oro har, datuek iradokitzen dute gizonen presentzia handitu egiten dela eragiteko edo erabakitzeko gaitasun handiagoa duten eremuetan.
PARTAIDETZARAKO ETA GOBERNU ONERAKO INTERESA
Gipuzkoako Eskola Irekiaren prestakuntzetan, partaide eta dinamizatze gehienak emakumeak izan dira (% 66 eta % 75 artean). Horren arrazoia izan liteke, neurri batean, enplegu publikoaren feminizazioa eta harreman- eta komunitate-funtzioak dituzten eremu horien ohiko asoziazioa. Hala ere, interes-taldeetan gizonak dira nagusi (% 60), ziurrenik erabakiak hartzean eragiteko duten gaitasunagatik.
BEREIZKETA BERTIKALA
Elkarte-oinarriaren feminizazio handia ikusi da, eta ordezkaritza-postuetan behera egin du. Foru Erregistroan, emakumeak lehendakaritzen % 44,8 dira, eta gizonak, berriz, % 55,2. Antzeko datuak ikusten dira EAEko elkarte-ehunean. Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritzan, lantalde teknikoa gehienbat emakumeek osatzen dute (% 71), zerbitzu burua emakumea da eta zuzendaritza gizon batek betetzen du. Alderdi positibo gisa, foru partaidetza eta ordezkaritza organoek, oro har, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua dute, eta hori, gainera, arautegi erregulatzaileak eskatzen du.
PARTE HARTZEKO MODUAN DAUDEN ALDEAK
Gune batzuetan emakume gehiagok parte hartzen duten arren, gizonek esku-hartze luzeagoak egin ohi dituzte. Parte-hartzearen benetako eraginean desberdintasunak saihesteko, esku-hartzeak orekatzera bideratutako dinamizazio-neurriak txertatzen dira. Espazio horien dinamizazioa erabat feminizatuta dago.
DIRULAGUNTZETAKO BERDINTASUN-NEURRIAK
Berdintasun-irizpideek 100 puntutik 6 adierazten dituzte udalentzako dirulaguntzetan, eta 9 elkarteentzako dirulaguntzetan. Lortutako batez besteko puntuazioek aurrerapenak erakusten dituzte, baina oraindik ere apalak dira. Gaur egun, ez dago informaziorik neurri horiek benetako partaidetza-berdintasunean duten eragina neurtzeko. Gainera, udaletan diruz lagundutako prozesuen % 23k zuzenean jorratzen dituzte berdintasunarekin lotutako gaiak.
MUGIMENDU FEMINISTAREN PRESENTZIA
Parte Hartzeko Herritarren Erakundeen Foru Erregistroan inskribatutako 99 entitateetatik, bakar batek egiten du lan esplizituki genero-berdintasunaren alde. Horrek agerian uzten du mugimendu feministaren presentzia instituzional eskasa ekosistema parte-hartzailearen barruan.
JENDAURREAN JARTZEKO ESKAERAK
Eskaera gehienak gizonek egiten dituzte. Arrakala hori eremu profesionaletan edo ordezkaritza-eremuetan presentzia handiagoa izatearekin erlaziona daiteke; emakumeen parte-hartze txikiagoa,

berriz, denbora-mugekin edo legitimazio sensazio txikiagoarekin lotuta egon daiteke.
KOMUNIKAZIO PUBLIKOA
Genero ikuspegiaren inguruko prestakuntza izanik. Horren ondorioz, arreta berezia jartzen da komunikatzeko erabiltzen diren irudietan eta hizkuntzan.

Berdintasun-agindu nagusiak:

Politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezartzeko. Neurri espezifikoak eta aldi baterakoak hartzea, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz dauden egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna oinarritzen den sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea sustatzea. Estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketan sexuaren aldagaia sistematikoki txertatzea eta genero-adierazleak ezartzea. Erabakiak hartzeko eremu guztietan eta, bereziki, zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko neurri egokiak hartzea. Lanbide, enpresa, gizarte-ekonomia, sindikatu, politika, kultura edo bestelako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin sustatzea. Herritarrek parte hartzeko prozesu, une edo espazio orok eztabaidatu, kontsultatu edo erabaki beharreko eduki publikoetan genero-ikuspegia txertatzen duela bermatzea.
Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatzea, berdintasun-baldintzetan, modu erreal eta eraginkorrean, parte hartzeko eskubidea gauzatzeko tresna eta prozedura espezifikoetan. Dirulaguntzak: bereziki, genero-berdintasuna sustatzea hartuko da kontuan, eta beren jarduerak genero-ikuspegitik planifikatzen dituzten eta berdintasuna sustatzeko neurriak garatzen dituzten erakundeei eman ahal izango zaie lehentasuna. Genero-ikuspegia txertatzea jarduera Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatzen duten herritarrak eta herritar-erakundeak prestatzeko programan. Gobernu onaren printzipioak: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

- HO.4238: Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko

Ekintza lerroak:

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Programaren gainerako ekintzetan, genero-ikuspegia kontuan hartzen da, honako jarduera hauen bidez:

- Sexua zeharkako aldagai gisa eta/edo genero-adierazle gisa
- Berdintasun-irizpideak kontratu, diru-laguntza, laguntza eta/edo hitzarmenetan
- Dei espezifikoa egitea emakume feministen elkarteei, Gunearen bidez, programak elkarteei eskaintzen dien guztian.
-

Prestakuntza-ikastaroak antolatzea, herritarrek parte hartzeko eta gizarte-ekintzako prozesuetan genero-ikuspegia txertatzeko.

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	6,50	puntu
Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0440 - Administrazioaren Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia
Programa: 400 - Foru Aldundiko zerbitzuen berrikuntza eta eraldaketa
Funtzionala: 920 - Administrazio orokorra

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Zerbitzutik bultzatzen ditugun hobekuntza proiektuen bitartez Aldundiaren eraldaketako arlo guztietan genero ikuspuntua txertatzeko aukera ikusten dugu.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GENERO BERDINTASUNA

Departamentua: 04 - GOBERNANTZA DEPARTAMENTUA
Atala: 0450 - Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza Nagusia
Programa: 500 - Suaren aurkako babesa eta sorospena
Funtzionala: 136 - Prebentzio eta suhiltzaile zerbitzua eta salbamendua

Programaren genero garrantzia: Txikia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Ordaindutako lan bat egitea baldintza egokietan

Beharraren deskribapen xehatua:

Parkeen egokitzea emakumeen beharrei eta hautaketa prozesuetan emakumearen presentzia bermatu eta areagotzea zerbitzuaren egoera hobetzeko.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)